



# GABON KANTAK HONDARRIBIAN

**L**ehenago ere hemengo Gabon kantaz aritua naiz aldizkari honetan. Oraingo honetan beste biren adabakiak dakarzit. Adabakiak diot Sunbillan eta Beran kantatzen zirenen aldaki edo barianteak direnez gero.

Eusko Ikaskuntzak, aurten, argitara berri du Aita Donostiaren Cancionero Vasco delako obraren zortzigarren liburukia. Bertan, besteak beste, honako bi Gabon kanta datoz mende honen hasieran Hondarrabian bilduak: bata, "Dios te salve, ongi etorri" eta, bestea, "Alabatua, bedeinkatua" izenburuz, 540 eta 541 orrialdeetan. Hara hemen doinuz eta bertsoz han datorrenaren arabera:

Dios te sal-ve, on-gi e-to-rrí,  
Ga-bon Jain-ko-ak die-la. Le-gi-a-  
-re-kin kun-pli de-za-gun ur-te be-  
-rri-ren bez-pe-ra.

"Dios te salve", ongi etorri,  
Gabon Jainkoak diela.  
Legiarekin kunpli dezagun  
Urte berriren bezpera.



Hau da 1920. urtean A. Modesto Lekunberrikoak jaso zuenaren arabera.

Bigarrena bi bertsoz, hiru urte lehenago jaso zuen A. Xabier Sangotzakoak. Biltzaile biok, Aita Kaputxinoak, noski.

Eta, hona doinu eta bi bertsoak:

Solo (declamado)  
A-la-ba-tu-a, be-dein-ka-tu-a síf Sa-kra-  
-men-tu sain-du-a, Pe-ka-tu-a-ren man-txa-rik  
Coro Lento  
ge-be ze-ña dan kon-ze-bi-tu-a. Dios te sal-  
-ve on-gi e-to-rrí Ga-bon Jain-ko-ak dí-e-  
-la, le-ge-a re-kin kon-pli de-za gun  
ur-te be-rrí-ren bez-pe-ran.

Alabatua, bedeinkatua  
Ai! Sakramentu saindua,  
Pekatuaren mantxarrik gabe  
Zeña dan konzebitua.

Dios te salve ongi etorri  
Gabon Jainkoak diela,  
Legiarekin kunpli dezagun  
Urteberriren bezperan.

Jose Gonzalo Zulaika, Aita Donostia, 1886ko urtarrilaren 10ean jaio zen Donostian eta Lekarotzen hil 1956ko abuztuaren 30ean. Musikagile ez ezik, doinu eta kanta biltzaile ere izan zen. Bere bilduma oparoa altxor bitxi bezala gorde zuen Aita Jorge Riezu zenak; berari esker Obra Musikal delakoaren 12 liburukiak lehenago argitara eman ziren eta beste bilduma lanok, herriz-herri bildu zituenak, Lekarotzen Aita Donostiaren artxibategian atondurik zituen. Gran Enciclopedia Vasca zelakoari eman zizkion argitara zedin, baina porrot egin ondorean, laugarren liburukitik, Eusko Ikaskuntza jabetu zen herriarena zen kultur ondare paregabe hau berriz herriari itzultzeko, Aita Donostia eta Aita Riezu zirenei esker.

J. San Martin